

«OLERKI GUZTIAK»

-Lauaxeta-

Nun-naiko errik daukaz bere poetak. Oneik batzuetan goratuak izan dira, baita iñoizka gaiztetsiak be. Baiña eurak izan jakuz, an eta emen, erriaren gogo, gar eta kezak ondoen ulertu ta aurrera eroan ditueank. Euskaldunak be, ortzargiz diñogu, izan ditugu olerkariak, eta ba-doguz gaur egunean be. Gogora iru bikaiñak, guda aurretik, gudartean eta ondoren olerti-lanean jardunak -Lizardi, Orixe ta Lauaxeta-, oraiñarte iñok gainditu ez ditunak. Euren lanak bipil dabiltz gaur be, ainbat aldiz eta oraintsu bardin argitara emonak: «Olerkiak. Xabier Lizardi» (Erein, Donostia, 1983, 342 or.); «Euskaldunak» poema eta Olerki Guziak» (Añamendi, Donostia, 1972, 703 of.); eta «Olerki Guziak. Lauaxeta» (Bilbo, 1986, 524 of.)



Ao batean autor daikegu, iru olerkariok beintzat, ez dirala lakaripean eukitekoak. Gaiñera zorionak darabiltz oraingoan beso-gaiñ bigun maitakorrean. Txalogarri dogu au. Erri batek bere nortasuna jagon nai ba'dau, ez bei ixiltasunik opa izan, ots atera baiño. Jarioz indartu ta geitu bear da norbere nortasuna, jakin daiela gure balioa lurrez lur eta itxasoz itxaso. Gogor egin

barik gerizpean dagoana, azkenik be il egiten, diño Unamuno'k.

Lauaxeta'z diardugu emen. Aspaldi, bildurrez edo, ixillik geunkana orrulari plazaratu jakun oraindik orain. Izan ditu omenaldiak Laukiz'en, Larrea'n eta abar; Antton Valverde kantari jarduna da aren poesietatik ainbat, ozen eta sentikor, otsegifuz euskal errietan zear; aren azurrak, Gazteiz'en egozanak, Mungia'ra ekarri ziran ospetsuki, meza, itzaldi, dantza ta ibilte gurenez aintzaturik; zabal dabiltz aren «Azalpenak» eta «Olerkiak» Joan Kortazar'ek argitaratuak, eta nik «Olerkiak» (1973) eta aurren «Olerki Guztiak» plazaratuak.

Begien aurrean daukat azken au, «Olerki Guztiak», azal ta mamifuez ederra; ezta ez, artobero usaiña dariona: zeuk eskura ta irakur. Illabete lez dala euskal idazle jakintsu batek, deituak izan gintzazan batzarra amaitzean, bota eustan: «Ezpei geroztik iñok esan Lauaxeta ulert-eziña danik». Azken idazti ontan, izan be, argi geratu da laukiztarraren olerkigintzarako trebetasuna, joskera, adizkera, idazkera ta gairakoai begira. Olerkiok argitaratzean auxe zan berariz nire jomuga: argitalpen barri bat eskiñi ikasleai Lauaxetaren bertsozko bide ta zadorrak aztertu ta argi ipiñiz. Aurreko amar urteotan, Deustu'n euskal Filologia ikasten diarduen gazteak sarri izan jataz Larrea'n argi-billa. Olerkari onen lanak aztertzerakoan ez ekien nundik asi ez zelan jokatu. Orduan asi nintzan neu be Lauaxeta'ren poetika berezia iratio ta ikertzen.

Liburu ontan dator nik osoturiko azterketa orren guna; beraz, «Olerki Guztiak» ez da Lauaxeta'ren poesi guztien argitalpen utsa bakarrik. Poeta gailen onek, dakigunez, liburu bi emon euskuzan bere bizitza laburrean: «Bide Barriak» eta «Arrats beran». Orrez gairera, orduko egunkari ta aldizkarietan ainbat banako idazlan. Guztiok sustraiz aztertutik daukazuz argitalpen onetan. Zeron azterketa dagit baitik bat: olerki bakotxaren egitura, metrika, barne-ritmu, azken oskidetza, gaia ta adizkerak. Oso aberats dogu Lauaxeta zer guztiotan.

Au zan askoren negar-zuzmurra, neurri geiegian darabilela

aditz trinko edo sintetikua. Ezin ukaturiko egia; baiña euskal poesiak berak dauana dozu ori. Adibidez *dakari* eta *ekarten dot*, esan eta erabili geinkez gauza bat dakardala esatean. Leenengo grafema laburragoa dozu, bigarrena baiño, giar, estu, bikaiña goa olerkirako batezbe. *Dazaut* (ezagutzen dot), *dantzuzu* (entzuten dozu), *dager* (agiri da, edo agertzen da), *dabil* (ibiltzen da), eta abar, erriak darabiltzanak eta ez darabiltzanak daukazuz Lauaxeta'ren poesietan, eta adizkera oneik argi-argi damotzudaz liburu one-tan. Eta zeu be, leenengotan zail izanarren eurok, azkenez zale-turik geratuko zara.

Gaztetxo il eben Lauaxeta, 32 urteko zalarik. Erne ta zut gorantza joian landarea uste bako zartakoz moztua izan zan. Pro-saz ta bertsoz, orraitino, euskal lan ugari bikaiña itxi euskun «Euzkadi» egunerokoan batez be. Ikasle izan zan bitartean ondo ikasia geratu jakun literatur maillan ta euskal olertiari buruzko lan errimetan buru-belarri sartu ta ekiteko gogo aunditan. Ira-kur Jon Kortazar'ek gertatu ta Labairu'k argitara emondako «Azalpenak» liburuan datorren «Orixe»-ri Erantzuna» (130 of.). Ortxe agertzen jaku Lauaxeta munduko literatura gauzetan ika-si-ikasia.

Nik beti izan neban kutun Lauaxeta. Begoña'n ikasle nin-tzalarik sarri samar joan oi gintzazan bera agurtzera; mendizale zan-eta, Bizkargi'ra joera aundikoa, ni birritan eroan nindun ara, bere lagunakaz batera, meza emotera; gerraldian, ni Kanpazar, Intxorta ta Basalgo'n nengoala ta bera gudari-ikusle, ainbat bi-der etorri jatan poza ta kemena ezarten. Gazte olerkari aregaz, bada, untzortia aretxari lez edo, esker onez lotua nintzan.

Iguin ditut gizaseme otzak, baita goresle itsuak be. Ez dot jausi nai arein karkaban, ez beste orrein leza illunean. Mutur bi aundion artean lekua zaintzen dakianak dira gauzak ondo ikusi ta artez iristen dabezanak. Ez dodaz, beraz, gauzak euren ardatze-tik atera gura. Lauaxeta'ren oler-lanen aurrean, alan be, ezin gengikez otz agertu, arduraz arakatu ta ebatzia emon baiño. Ni orretan jarduna nozu aspalditik, baiña guda ondoko ibiltaldi lu-zean be, beti euki izan ditut eskuetan aren idatziak eta 1954'n,

32 urte dirala, «Milla Euskal Olerki Eder» bilduma osatzean, Lauaxeta'ren 19 poesi sartu nituan bertan; 1973'an, urteroko Olerki-eguneari omenaldia eskiñi jakon, emen Larrea'n, eta ortarako aren olerkiak txorta polita, «Olerkiak» izenekoa egiñik, argitara emon neban, eta bertan datoz «Bide Barrijak», «Arratsberan» eta beste 20 poesi; 1975'an, Retana jaunak eskatuta, «Las cien mejores Poesías de amor de la Literatura vasca» argitara nebanean, iru olerki Lauaxeta'renak, «Zelayetakua», «Maitale kutuna» ta «Begien omenez» sartu nebazan bertan; 1977'an, *Gaiak* aldizkarian emon nituan aren «Azken Olerkiak», zortzi guztiz, eta *Zeruko Argia*-n urte berean, «Azken oyua»; 1978'an, *Zer-en* «Maira deya»; 1980'an, «Bide Barrijak», euskeraz ta erderaz, eta oraingo au «Olerki Guztiak» (Bilbo, 1986, 524 orrialde).

Azken onek, azaletik jardunez, sei zati dakarskuz 1) «Bide Barrijak-Rumbos Nuevos», 40 olerki; 2) «Arratsberan - Al atardecer», 40 olerki; 3) «Liburuetan batu bakoak», 49 bertso-lan; 4) «Itzulpenak», 17 lan; 5) «Eritxiak», Jokin Zaitegi'k eta Luis Arostegi'k emonak; 6) «Gorapenak», J. Aitzol, Jautarkol, Klaudio Gallastegi, Martin Ugarte, Muniategi'tar Sabin, A. Zubikarai, Ino Akesolo, A. Ibiñagabeitia, Gotzon Garate...

Ez ditut urrats gitxi emon bear izan gai guztiok batzeko! Lan oso batek orixe eskatzen. Euskal literaturan egiteko dago oraindik olako *Thesaurus* bat, beste era batera esanda, oindiño batu barik daukaguz zein gure idazleak argitaratu dabezan liburu-ruen mamin sorta zein euskal idazlariak, mende onetakoak batez be, or-emen, ango ta emengo egunkari ta aldizkarietan azaldu ebezan lanak. Olakoak osoturiko liburu mordo eder bat ba'geunka, asko erreztuko litzakigu gure literaturari buruzko aint-bat eratako lana. Nik, dana dala, Lauaxeta'ren olerki ta artikulua aurkitu al izateko Lazkao'n Aita Beneditarren liburutegian ta Bilbo'n Bizkaiko Foru Aldundiko artxibuan «Euzkadi» egunerokoa aztertū bear izan neban. Esker ona zor dautset biai, eta bego emen gartsu Aita Beneditarrak emon eusten ostatu, laguntza ta txeragaitik, eta berdintsu Bilbo'n eskiñi eusten lanerako erreztasunagaitik.

Idazle oparo ta arnas aundiko lez agertzen jaku Lauaxeta,

1928'tik aurrera batez be. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n idatzi eban 1925'rik, Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n, «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n, «Yakintza»-n... Eta laukiztarraren lan-txorta zeatza osotu nai dauanak, iturri orreik aztertu bear ditu naitaez. «Euzkadi» arakatzean, zur ibilli bear da; 1928'tik etenbako lana burutu euskun emen. Poeta lez Orixe'k su emon eutsan, zer batzuetan alkar bat ez etozanak ziran arren. «Euzkadi»-k ekarren *Euzkal Atala* zuzentzen eban orduan Orixe'k eta egunkarian orrialderik nabarmenean ipiñi oi zituan Lauaxeta'n olerkiak, labur dotoreak, geienak, gaur emen eta biar an; biltzailleari, beraz, erme ez ba'dabil, errez kuku egin legikeo bateren batek. Txiki txairoak dituzu garai aretan ondu zituanak, orixegaitik bai liburuak begiestean eta bai irarkola lanean jardutean, kizkirak sare-gartzatik lez, kanpora txirristu leitekez igarri barik, iruk niri egin eustien lez; esku artean neukazan iruk, bai «Biotzaren negarra», «Izar ituna» ta «Idia» -43 orrialdean aitatuak, olantxe iges egin eustien, eta ez dakit nundik diran.

Geiagoko barik, emen daukazu, irakurle, Lauaxeta oso-osorik, olerki saillean beintzat, aren sorpen-lanak irakurri ta ausnarturik, irudimena jorituz ta biotza suspertuz, nik egin dodan bezela, «bestiak entzuten eztaben egal-otsa» entzunez, asti-une pozgarriak izan daizuzan.

Igotz